

Larraintzarko


IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2019-2020	IRAKASLEA	IDOIA SANZ SAGASETA
MAILA	DBH 1	ARLOA	INGELESA

HELBURUAK

- 1- Gai zehatz eta ezagunei buruzko ahozko testuetan eta ikus-entzunezko hedabideek argitasunez emititutako mezu errazetan informazio orokorra eta berariazkoa, ideia nagusia eta xehetasun muntadunak ulertzea.
- 2- Era askotako komunikazio asmoak dituzten ohiko edo interes pertsonaleko egoerei buruzko elkarrizketa eta simulazio laburretan parte hartzea, hizketaldiaren konbentzio propioak erabiliz eta elkarrekintzan sorturiko zailtasunak ebazteko behar diren estrategiez baliatuz.
- 3- Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetoako informazio orokorra eta datu garrantzitsu guztiak ulertzea, egitateak eta iritziak ezagutuz eta egilearen komunikazioa asmoa identifikatuz, kasua bada...
- 4- Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentiako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearentzako ulergarriak izan daitezzen.
- 5- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi kultural garrantzitsuenak identifikatzea, ikasten den hizkuntzaren gizarteak dauzkan ohitura, arau, jarrera eta baloreetako ezaugarri aipagarrienak seinalatzea, eta norberarenaz besteko patroi kulturalak positiboki baloratzea.
- 6- Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autoauto zuzenketarako eta auto ebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak ulertzeko.
- 7- Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu eta ahoz azaltzea.
- 8- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak



Larraintzako

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.

x	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA	x	GAITASUN SOZIAL ETA ZIBIKOAK
x	MATEMATIKA GAITASUNA ETA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO OINARRIZKO GAITASUNAK	x	EKIMENA ETA EKINTZAILETZA
x	GAITASUN DIGITALA	x	KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPEN KULTURALAK
x	IKASTEN IKASTEA		


DENBORALIZAZIOA

1. hiruhilabetea	3 unitate hauek: Unit 1: They are famous! Unit 2: At home Unit 3: Teen trends
2. hiruhilabetea	3 unitate hauek: Unit 4: Great holidays Unit 5: All about sport Unit 6: Amazing animals
3. hiruhilabetea	3 unitate hauek: Unit 7: It's a celebration Unit 8: Changing the world Unit 9: Going out

EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDAR EBALUAGARRIAK

LOMCE Legeak eta 24/2015 Foru Dekretuak, (apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak) arautzen dituztenak.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/



Larraintzarko

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

EGUNEROKO LANAREN BALORAZIOA

DBHn ikaslearen hezkuntza garapena bera etaparen helburu nagusia denez gero, eta ez ezagupenen bereganatze soila, hurrengo irizpideek lehentasuna dute gelako jardueran:

-Interesa eta ahalegina gelan: ikasteko interesa, ardura lanean, arintasuna jardueran, ariketak ongi eta gustuz burutzeko jarrera, gelako parte hartzea behar denean...

-Lanaren antolaketa egokia (trebetasuna nork bere lana antolatzeko): autonomia lanean, koadernoaren eta agendaren erabilera egokia, oharrak hartu, informazioa bilatu, hiztegia erabili, ekimena eta sormena, berak egindako lana ebaluatzeko trebetasuna, materiala egunero ekarri, garbitasuna, lanaren aurkezpena...

-Portaera gelan: isiltasuna gorde jardueretan hala behar denean, ikaskideekiko errespetua, ikastetxearekiko errespetua, elkarlana (bikoteka, taldean, gelan, ideiak eta ezagutza partekatzeko jarrera, nork bere lanaren ardura hartu...)

-Etxerako lana: etxerako lanen maiztasuna errespetatu, etxerako lana tajuz burutu (aurkezpena, ariketak amaitu), etxean lan egiteko autonomia...


KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio arruntak

Ebaluazio arruntak: lehenengo, bigarren eta hirugarren ebaluazioak.

Kalifikatzeko irizpideak:

- Jarrera eta portaera: notaren %5a. Era jarraian kalifikatuko da. **Jarrera gainditzea ezinbestekoa** da irakasgaia gainditu ahal izateko, beraz gutxienez 5a atera beharko da.
- Etxerako lana: notaren %10a. Era jarraian kalifikatuko da.
- Gramatika eta hiztegia: notaren %40a. Azterketen bitartez kalifikatuko da.
- Idazmena (writing): notaren %20a. Azterketen bitartez eta lan arrunten bitartez kalifikatuko da.
- Irakurmena (reading): notaren %15a. Azterketen bitartez kalifikatuko da. Horretaz gain, urtean zehar liburuak irakurri beharko dira eta horiei buruzko lantxoak ere kontuan hartuko dira notarako.



Larraintzako

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

- Entzumena (listening): notaren %5a. Azterketa hau ez da aurrez aldetik abisatuko. Azterketen bitartez kalifikatuko da.
- Mintzamena (speaking): notaren %5a. Azterketen eta aurkezpenen bitartez kalifikatuko da.

OHARRA: gaitasun guztietan gutxienez 3,5 atera beharko da media egin ahal izateko.

Azterketa guztietan sartzen diren materia eta edukiak

Ebaluazio jarraia izanen denez, gelan eta etxean ikusi, landu eta ikasi dugun guztia ikasi behar da, ebaluazio guztietan; Student's book delakoa, workbook delakoa, koadernoak, fotokopiak...

Ikasturte osoko kalifikazioa

Ez badago suspensorik, azkeneko nota jartzeko kontutan hartuko dira hiru ebaluazioak gehi azkeneko lanak.

EZ-GAINDTUAK BERRESKURATZEKO SISTEMA

Ebaluazio arrunta


Ebaluazio jarraia da, beraz azterketa bakoitzean aurreko gaietako edukiak sartuko dira. 3. ebaluazioa suspendituta, zuzenean OHIKO DEIALDIRa joan beharko da ikaslea.

OHIKO DEIALDIA

Ikasle batek ez badu ikasturtea gainditzen, ohiko deialdiko azterketa ofiziala egin beharko du.

EZ OHIKO DEIALDIA

Ikasleak ohiko deialdia gainditzen ez badu, ez-ohiko deialdian beste aukera bat izanen du.



Larraintzarko

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

Aurreko ikasturtean gainditu gabek kalifikatzeko irizpideak

Aurreko ikasturtean gainditu gabeko ingelesa errekuperatzeko azterketa bat izango da ikasturtean zehar. Azterketa gabonak pasa ondoren egingo da. Gainditu gabeko ikasleari data zehatzak eta ikasteko materia jakinaraziko zaizkio, ikasturteko egutegia kontuan hartuz.

Azterketa honen atal hauek ebaluatuko dira:

- Gramatika eta hiztegia: %50a.
- Irakurmena (reading): % 25a.
- Idazmena (writing): % 25a.

Azterketetara ez etortzeak

Ohiko eta ez-ohiko deialdien datak ofizialak dira. Ikaslea agertzen ez bada, dokumentu ofiziala aurkertuz justifikatu behar du bere ez-etortzea. Besterik ez da onartuko.

Oharra: honako programazio labur hau, ikasturtean zehar eman daitezkeen beharretara egokitu daiteke.

BESTELAKOAK

Hauek dira testu liburuak:

Student's Book. New English in Use ESO 1 ISBN 978-9963-51-657-5

Workbook. New English in Use ESO 1 BASQUE (Euskara) ISBN 978-9963-51-660-5

Linda Marks eta Charlotte Addison idazleak. Burlington Books Argitaletxea.

Sinadura

Larraintzarren 20...koarenan